

9. GIZARTE EKIMENAREKIKO ELKARLANA

9.1. Irabazi asmorik gabeko elkarteetarako diru laguntzak

Gizarte ekintzaren Zuzendaritzak bultzatzen dituen **laguntza ekonomikoen helburua elkarteei laguntzea da**, gizarte ekintzaren arloan egiten duten **elkarleen lana** bermatuz. Aurkezten diren proiektuen helburu zehatzak orain adierazten ditugun motatakoak izan daitezke:

- Elkarlearen eguneko jardueraren mantentzea
- Sentsibilizazio eta gizarteratze ekintzak. Era berezian gizarte arloko boluntarioak lortu eta trebatzera zuzendutako ekintzak
- Elkarle ekintzen helburu diren kolektiboek zuzenduta dauden esku-hartze programak hedatu. Era berezian, boluntarioek egiten dituzten ekintzak kontutan hartzen dira.

2024an Tokiko Gobernu Batzarrak 277.671,04€-ko laguntza ekonomikoa ematea erabaki zuen gizarte ekintzaren arloan diharduten irabazi asmorik gabeko 86 elkarteri 129 proiektu diruz lagunduz.

1. eranskinean, 2024an diruz lagundutako elkarte eta proiektuak zehaztuta agertzen dira.

9.2. Elkarlanerako hitzarmenak elkarte eta erakundeekin

2024an, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak **elkarlan hitzarmenak** sinatu ditu hurrengo erakunde hauekin:

NAGUSILAN eta GURUTZE GORRIA

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin elkarlanean, adinekoei eta pertsona ezgaituei konpainia eta etxean laguntzeko ekintzetan aritzeko eta ostatu-baliabideetan laguntzeko ekintzak garatzeko.

Bi lankidetza-hitzarmenei lotutako zenbatekoa, 2024an, 8.166 eurokoa izan da.

DYA

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin elkarlanean, pertsonen eta taldeen garraio beharrak betetzeko, Udalaren gizarte lanaren edozein esparrutan.

2024ko lankidetza-hitzarmenak jasotzen duen kopurua 8.166 eurokoa da.

AFAGI (Alzheimerra dutenen Senitartekoen Gipuzkoako Elkarte)

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan, psikoestimulazio kognitiboko prebentzio programa bat hedatzeko. Alzheimerraren hasierako fasean dauden edo beste dementzia sindrome bat diagnostikatuta duten adinekoentzat zuzenduta.

2024ko lankidetza-hitzarmenak jasotzen duen kopurua 36.080 eurokoa da.

Era berean, 2024an, Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak **ezohiko lankidetza-hitzarmena** sinatu du **OSASUNA SUSTATZEKO ELKARTEA BIZIKLETAK ADINIK EZ** elkartearekin.

ELKARREKIN BIZI DEZAGUN HIRIA proiektua finantzatu da. Autonomia ahula edo mendetasun ertaina duten 65 urtetik gorako pertsonen komunitatearekin eta ingurunearekin harremanetan jartzeko aukera ematen du, trizikloetan eta boluntarioekin batera irteerak eginez.

Lankidetza-hitzarmenari lotutako zenbatekoa 9.995 eurokoa izan da 2024an.

9.3. Irabazi asmorik gabeko elkarten egoitzetarako edota beraien jarduerak burutzeko lokalak lagatzea

Udalerrian lan egiten duten erakundeekiko lankidetza-ildo hori **jarduera garatzeko udal-lokalen erabilera lagatzean** gauzatzen da.

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza gizarte arloan lan egiten duten erakundeen alde egindako 20 lokal lagapenen arduraduna da.